Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE • Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI • Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URIA • Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI • Gerentea: FERNANDO FURUNDARENA • Publizitatea: IDOIA SANZ.
Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain ✆ 943300222 / Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 / Publizitateko faxa: 943300707 • Web gunea: www.egunkaria.com
• Posta elektronikoa: egunkaria@jalgi.com/ publizitatea: publi@egunkaria.jalgi.com

Egunkaria
Larunbata, 1999ko maiatzaren 22a
X. urtea / 2.623. zenbakia

Batzorde Parekidea: 72564 E • Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA
Ordezkaritzak: • Araba: San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ✆ 945233872 / Faxa: 945233873 Publizitatea: ✆ 945131965 • Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea / ✆ 948178078-79 / Faxa: 948178077 / ✆ Publizitatea: 948176686 • Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.ezkerra / 48003 Bilbo / ✆ 944104046 / Faxa: 944103715 / ✆ Publizitate Orokorra: 944701199-80 / Publizitate Lokala: 944701114 • Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta kutxatila, 64100 Baiona / ✆ 559593575 / Faxa: 559257511



«Grandiose!»

Nafarroako erregegaiak arbasoen hilobia bisitatu zuen Iruñeko katedralean

«Grandiose. Grandiose», errepikatzen zuen joan den ostegunean Pierre Dessire La Motte-Messemek, Pedro I.ak, Iruñeko katedralaren edertasunak kikilduta. Ezer ulertzen ez zuten turista alemaniarren artean, kolore biziko ezkutuen azpian, klaustro ederraren argilunen artean, erret kaperaren iluntasunean, eliza zaharraren presentzian, gizakia mundu honetan deus ez dela hondarra baizik ohartu zen erregegaia. «Grandiose!».

Pedro I.a monarka xumea da. Monarkatxoa, nolabait esateko. Nafarroako koroa berreskuratu nahi ote zuen galdetu ziotenean barre egin zuen pixka bat. Gero pentsatu zuen bazela garaia familiari zegokiona erreibindikatzeko, eta traje alokatua jantzita Nafarroatik iritsitakoei agindu zien joango zela Iruñera, mintzatuko zela herriaren aitzinean. Asteazkenean iritsi zen, Miarritzetik, Mercedes beltz zaharrean. Ostatu hartu zuen Albret hotelean eta ostegunean katedralera azaldu zen. Berarekin batera Beaumonteko dukea -txoferrarena ere egiten zuena-, Nizako ondasunen administratzailea, itzultzaile librea, erret-etxeko idazkaria eta honen amona eta izeko.


MIKEL SAIZ

Pedro I. loreak uzten arbosoen hilobian. Ondoan du Beaumonteko dukea.

Intzidente diplomatikoa

Bisita ondo hasi zen, harik eta intzidente diplomatikoaren mamuak tentsioa jarri zuen arte: katedralean sartzeko 500 pezeta ordaindu behar da, eta inon ez dago idatzita erregeei buruz ezer. Segiziokoak gelditu egin ziren atarian, dudatan, baina Pedro I.a, pauso zeremoniotsu eta sendoz, barruraino sartu zen. Katedralaren museoko zuzendariarekin hitz batzuk egin ondoren -batak frantsesez tutik ez, besteak gaztelaniaz gutxiago, hitz alfer asko eta erreberentzia gehiago: agur eta agur- historiaren pisu azpian erregegaia emozionatu zen. «Txiki sentitzen naiz honen guztiaren aurrean, umil».

Gero, Beaumonteko dukeak lagunduta, hurbildu zen azken nafar erregeen hilobira, eta arrosa sorta paratu zuen hantxe eta otoitz egin zuen pixka bat. «Eta Madalena?» galdetu zuen orduan. «Madalena!?», Blas eta besteek. «Ba, hemen ehortzitako azken erregina! Hemen behar luke!», berak. Inork arrastorik ez eta erregea kontsolatzen ahalegindu ziren denak: «Hau guztia berorrena da», eta gisakoak.

Gero, kanpoan, euria ari zuen. Azken Albretek Nafarroatik ihes egiteko erabili zuen bidea ikustera zihoazelarik, Navarreriatik barna, «eta Madalena?» entzun genion, triste samar, ustez.

Alberto Barandiaran
IRUÑEA

kasu!

Eskola-ume nafarrak diputatu

Hirugarren urtez jarraian, DBHko lehen mailako ikasleek bete zituzten atzo Nafarroako Parlamentuko eserlekuak. Lola Eguren Legebiltzarreko lehendakariak zuzenduta, ezohiko batzarra egin zuten gizartearen egoeraz, eta demokrazia hobetu, elkartasuna sustatu eta bazterketa eragozteko proposamenak onartu zituzten. Zintzo bete zuten diputatu jaun-andereen lana.

Gero eta monje kontenplaziozko gutxiago

Leireko monje kontenplaziozkoak gero eta adinduagoak daude, eta aspaldi da gazterik ez zaiela biltzen komunitatera. Hori dela eta, beldur dira gutxi barru ez ote duten monasterioa itxi beharko. Hala adierazi zuen atzo Luis Maria Perez Leireko abadeak, kongregazioko beste arduradun batzuekin egindako agerraldian. Gazteek gaur egun duten egongaiztasun psikikoari egotzi diote arazoa, horrek haien bizitza Jainkoari emateko ezgai bihurtzen dituelako.

Langabetuek hobeto jaten omen dute

Bai, hala omen: lanik gabe daudenek hobeto jaten dute lana dutenek baino. Espainiako Nutrizio Fundazioko lehendakariak esan du, diru gutxiago dutenez, «ogi eta dilista gehiago, arrain koipedun gehiago eta legatz gutxiago» jaten dutela langabetuek, eta, beraz, hobeto elikaturik daudela.